

Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerrri euskaldunetan

UDALERRIKO EMAITZAK



Itsasondo

2022ko apirila

Ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko inkesta bat egin du UEMAk umeen eta gazteen artean. 10-18 urteko herritarrek bete dituzte galdetegiak, batik bat ikastetxeen bidez, Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik eta Batxilergoko bigarren mailara. Guztira baliozko 11.600 inkesta bildu dira.

Datuen azterketa xehea uda ondoren aurkeztuko du UEMAk, baina, horren aurrerapen gisara, txosten honetan bildu dira udalerrinari dagozkion datu zehatzak. Galdetegiak bete dituzten eskolei ere bidali zaie informazioa, beren jardunerako baliatu ahal izan dezaten. Txosten honetan soilik udalerriko emaitzak bildu dira, eta uda ondoren izango da datu orokorrekin alderatzeko modua.

Bi galdetegi erabili dira datuak jasotzeko: bat, Lehen Hezkuntzan, laugarren mailatik seigarrenera; bestea, DBHn eta Batxilergoan. Emaitzak hobeto aztertzeko, bietako datuak bereizita jaso ditugu.

LAGINA

Lehen Hezkuntzan baliozko 14 galdetegi jaso dira, eta DBHn eta Batxilergoan, 11. Litekeena da horiek baino galdetegiren bat gehiago ere bildu izana, baina akatsak zeuzkatenak baztertu egin dira.

IKASLEEN HIZKUNTZA-EZAUGARRIAK

Ikus-entzunezkoen kontsumoa egoki aztertzeko, galdetegiaren lehen zatian ikasleen hizkuntza-ezaugarriak landu dira. Horrek modua eman du jakiteko zein den ikasleriaren hizkuntza-perfila. Datu horiek landu egingo dira azterketa orokorrean, eta ezaugarri horiekin alderatuko da ikus-entzunezkoen kontsumoa; besteak beste, lehen hizkuntzarekin, erraztasunarekin eta erabilerarekin.

Lehen hizkuntza

Aldagai horrek adierazten du herritar horrek zein hizkuntza jaso zuen umetan; oro har, etxeko hizkuntza izaten da, gurasoetatik seme-alabetara transmititzen dena (ama-hizkuntza ere esaten zaio). Udalerrian, honako hau da ikasleek lehen hizkuntzaren aldagaian eman duten erantzuna:

	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
LH	64,3	21,4	14,3	0,0
BH	63,6	36,4	0,0	0,0

Erraztasun erlatiboa

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, aldagai garrantzitsua da erraztasun erlatiboarena; alegia, hitzunak zein hizkuntzatan egiten duen errazen, zein zaion hizkuntza erosoagoa. Izan ere, euskara jakitetik harago, erraztasuna giltzarria da erabiltzeko. Maiz lehen hizkuntzarekin lotua egoten da. Erraztasun erlatiboari dagokionez, honako emaitza hauek eman dituzte udalerriko galdetegiak:

	Euskaraz errazago	Euskaraz edo gaztelaniaz berdin	Gaztelaniaz errazago
LH	50,0	28,6	21,4
BH	81,8	9,1	9,1

Ohiko erabilera

Hizkuntzaren erabilera aztertu da ikasleen ohiko eremuak kontuan hartuta: etxea, ikasgela, ikaskideak gelatik kanpo, lagunak eta eskolaz kanpoko jarduerak. Erabilera tasa esleitua jaso da ondorengo taula honetan: ikasleek adierazi dute ohiko hizkuntza zein duten bost eremu horietan, eta, horietan oinarrituta, erabilera tasak kalkulatu dira. Honako hauek dira udalerriko emaitzak:

	Etxean	Ikasgelan	Ikaskideak gelatik kanpo	Lagunak	Eskolaz kanpoko ekintzak
LH	58,9	75,0	58,9	55,4	71,4
BH	86,4	88,6	68,2	90,9	84,1

Txateko hizkuntza

Hizkuntzaren erabilera jada ez da mugatzen aurrez aurreko ahozko jardunera: gero eta garrantzi handiagoa du sare sozialen bidezko harremanak ere, ahozkoak eta idatzizkoak. DBHko eta Batxilergoko ikasleei galdetu zaie txatez nola aritzen diren etxekeekin, ikaskideekin eta lagunekin.

	Etxekoak	Ikaskideak	Lagunak
BH	81,8	75,0	86,4

Lehen Hezkuntzan ere galdetu da txatari buruz, baina modu orokorragoan, norekikoa zehaztu gabe.

	Euskaraz	Euskaraz eta erdaraz	Gaztelaniaz	Beste hizkuntza bat	Txatean ez da ibiltzen
LH	71,4	14,3	7,1	0,0	7,1

Sakelako telefonoaren erabilera

Ikus-entzunezkoen kontsumoarekin lotuta, bada kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsu bat: sakelako telefonoaren erabilera. Lehen Hezkuntzako ikasleei galdetu egin zaie horri buruz, alegia, sakelako telefonorik ba ote daukaten edo erabiltzen ote duten. Hauek dira herriko datuak:

	Ikasleak bere telefonoa du	Gurasoena erabiltzen du	Ez du erabiltzen
LH	21,4	50,0	28,6

TELEBISTA

Ikus-entzunezkoen kontsumoa aztertzeko, lehenik eta behin telebista kateei erreparatu zaie. Ohiko kontsumoa hartu da aztergai, eta, horretarako, galdetu zaie azken hiru egunetan zein kate ikusi dituzten —askok kate bat baino gehiago ikusi dute, eta, beraz, kate guztien kontsumoaren batura %100 baino handiagoa da: portzentajeak adierazten du zenbat ikaslek ikusi duten kate bakoitza—.

LEHEN HEZKUNTZA					
ETB1	ETB3	Euskarazko toki TBak	ETB2	Antena 3	Cuatro
28,6	0,0	35,7	21,4	7,1	0,0
Telecinco	La Sexta	Clan	Disney	Boing	Nickelodeon
14,3	0,0	50,0	28,6	35,7	7,1
Neox	Dmax	TDP	Energy	GolTV	Divinity
7,1	14,3	0,0	14,3	21,4	0,0
FDF	Fox	24H	Trece	Dkiss	Batere ez
7,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

BIGARREN HEZKUNTZA					
ETB1	ETB3	Euskarazko toki TBak	ETB2	Antena 3	Cuatro
54,5	27,3	9,1	27,3	18,2	9,1
Telecinco	La Sexta	Clan	Disney	Boing	Nickelodeon
18,2	0,0	9,1	0,0	9,1	0,0
Neox	Dmax	TDP	Energy	GolTV	Divinity
18,2	18,2	0,0	9,1	0,0	18,2
FDF	Fox	24H	Trece	Dkiss	AXN
45,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
BBC	BeMad	Blaze	Cocina	Comedy	Cosmo
0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Dark	Dcasa	Discovery	Eurosport	Historia	Real Madrid
0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
National G.	Mega	Ten	TNT	Batere ez	
0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	

Plataformak

Ikus-entzunezko plataformen kontsumoa ere gisa berean aztertu da: ikasleetatik zenbatek erabili duen bakoitza azken hiru egunetan —beraz, plataforma horietara sarbidea izatetik harago, ohiko kontsumoa aztertu da—. Ikasle batzuek plataforma bat baino gehiago erabiltzen dituzte, eta, horrenbestez, plataforma guztien kontsumoaren batura %100 baino handiagoa da. Hona emaitzak:

LEHEN HEZKUNTZA						
Netflix	Disney+	Movistar+	Amazon	AppleTV	Nahieran	HBO
42,9	0,0	0,0	21,4	0,0	7,1	14,3
RakutenTV	Starzplay	Fubo	Mitele	Filmin	Batere ez	
0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	28,6	

BIGARREN HEZKUNTZA						
Netflix	Disney+	Movistar+	Amazon	AppleTV	Nahieran	HBO
45,5	9,1	18,2	36,4	0,0	9,1	9,1
RakutenTV	Starzplay	Fubo	Mitele	Filmin	Batere ez	
0,0	0,0	0,0	9,1	0,0	18,2	

Serieen hizkuntza

Ikus-entzunezkoen kontsumo hori zein hizkuntzatakoa da? Telebista kateak eta plataformak aintzat hartuta, galdetu zaie zein hizkuntzatan ikusi duten azken seriea edo marrazki biziduna. Ondorioak:

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Beste bat	Ez du ikusten
LH	14,3	85,7	0,0	0,0	0,0
BH	18,2	54,5	9,1	9,1	9,1

SARE SOZIALAK

Ikus-entzunezkoen kontsumoa ezin da mugatu telebistara edo plataformetara: sare sozialek ere pisu nabarmena dute gaztetxoek egunerokoan, eta ikus-entzunezko jarduna dago horren oinarrian ere. Hortaz, aztergai hartu da sare sozialen erabilera eta horietako hizkuntza-jarduna. Lehenik, galdetu zaie zein sare sozial erabili ohi dituzten —bat baino gehiago aukeratu dituzte batzuek—. Emaitzak:

LEHEN HEZKUNTZA				
Facebook	Googlechat	Instagram	Snapchat	Telegram
0,0	0,0	0,0	7,1	0,0
Tiktok	Twitch	Twitter	Whatsapp	Youtube
78,6	7,1	0,0	21,4	71,4

BIGARREN HEZKUNTZA				
Facebook	Googlechat	Instagram	Snapchat	Telegram
0,0	0,0	72,7	81,8	27,3
Tiktok	Twitch	Twitter	Whatsapp	Youtube
100,0	9,1	9,1	100,0	90,9

Instagram

Bereziki erreparatu zaie hedapen handieneko sare sozialei, horietako jarduna hobeto aztertze aldera. Instagramen argazkiak eta bideoak ikusi eta igo daitezke, posten bitartez edo storyak sortuta. Lehenik, galdetu zaie egunean batez beste zenbat denbora pasatu ohi duten Instagram sare sozialean.

	> 2 ordu	1-2 ordu	½ - 1 ordu	15-30 minutu	<15 minutu	Batere ez
LH	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
BH	0,0	0,0	18,2	18,2	0,0	27,3

Bigarrenik, sorkuntzari buruz galdetu zaie: zein hizkuntzako edukiak jartzen dituzten Instagramen.

	Euskaraz beti	Euskaraz gehien	Gaztelaniaz beti	Gaztelaniaz gehien	Euskaraz eta gaztelaniaz	Beste batean beti	Beste batean gehienetan	Edukirik ez dut igotzen
LH	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
BH	27,3	18,2	9,1	9,1	9,1	0,0	0,0	27,3

Youtube

Interneten bideoak partekatzeko webgunea da Youtube, hedapen handikoa. Sare sozial gisa hartu da azterketa honetan. Batetik, aztertu da ikasleek egunean batez beste zenbat denbora ematen duten.

	> 2 ordu	1-2 ordu	½ - 1 ordu	15-30 minutu	<15 minutu	Batere ez
LH	0,0	7,1	28,6	35,7	21,4	7,1
BH	9,1	0,0	0,0	27,3	28,6	0,0

Denbora hori zer hizkuntzako bideoei eskaintzen dieten batez ere, hona udalerriko emaitzak:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Youtube erabiltzen
LH	0,0	71,4	0,0	14,3	0,0	7,1	7,1
BH	0,0	90,9	0,0	9,1	0,0	0,0	0,0

Twitch

Sare sozial honetan zein hizkuntzako kontuak jarraitzen dituzten ikasleek, hau da herriko egoera:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Twitch erabiltzen
LH	0,0	21,4	0,0	0,0	0,0	0,0	78,6
BH	0,0	9,1	0,0	0,0	0,0	0,0	90,9

Twitchen ezer argitaratuz gero zein hizkuntzatan egiten duten ikasleek eurek, hona hemen emaitza:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Twitchera ezer igotzen
LH	0,0	21,4	0,0	0,0	0,0	0,0	78,6
BH	0,0	0,0	0,0	9,1	0,0	0,0	90,9

Tiktok

Bideo laburrak partekatzeko sare soziala da Tiktok, eta, aurrekoen ildotik, erreparatu zaio ikasleek zenbat denbora igarotzen duten Tiktoken batez beste, eta zer hizkuntzatan ikusten eta egiten duten.

	> 2 ordu	1-2 ordu	½ - 1 ordu	15-30 minutu	<15 minutu	Batere ez
LH	0,0	0,0	21,4	42,9	14,3	21,4
BH	9,1	45,5	27,3	0,0	9,1	9,1

Tiktok sare sozialean zein hizkuntzatakako bideoak ikusten dituzten, emaitza hau eman dute ikasleek:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Tiktok erabiltzen
LH	0,0	71,4	7,1	0,0	0,0	0,0	21,4
BH	0,0	63,6	9,1	9,1	0,0	9,1	9,1

Eta ikasleek eurek zein hizkuntzatan igotzen dituzten bideoak Tiktokera, hauexek dira emaitzak:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du ezer igotzen Tiktokera
LH	7,1	21,4	0,0	0,0	0,0	7,1	64,3
BH	0,0	9,1	0,0	9,1	0,0	0,0	81,8

MUSIKA

Ikus-entzunezkoen kontsumoarekin lotuta, musikarena ere aztertu da inkesta honen bidez: ikasleek non eta zein hizkuntzatan entzun ohi duten musika. Lehenik, euskarriari buruz galdetu zaie: musika zer bidetatik entzun ohi duten batez ere. Aukera bat baino gehiago egin ahal izan dituzte, eta, beraz, euskarri guztien baturak %100 baino gehiago ematen du emaitza. Hona hemen udalerriko datuak:

	Youtube	Internetetik jaitsi	Spotify	Kontzertuak	Diskoak	Besterik
LH	85,7	0,0	71,4	14,3	14,3	0,0
BH	54,5	36,4	81,8	27,3	9,1	9,1

Musika entzunaldi horietan zein hizkuntza den nagusi, honako emaitza hau eman dute galdetegiak:

	Beti euskaraz	Beti gaztelaniaz	Beti beste hizkuntzetan	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere beste hizkuntzetan	Berdin euskaraz eta besteetan
LH	7,1	7,1	0,0	14,3	14,3	28,6	28,6
BH	0,0	0,0	9,1	18,2	27,3	27,3	18,2

BIDEO JOKOAK

Azkenik, bideo jokoaren kontsumoa hartu da aztergai, horiek ere ikus-entzunezko edukiak direla aintzat hartuta. Batetik, bideo jokoaren erabilerari begiratu zaio, eguneko batez besteko denborarekin:

	> 2 ordu	1-2 ordu	½ - 1 ordu	15-30 minutu	<15 minutu	Batere ez
LH	7,1	14,3	14,3	14,3	28,6	21,4
BH	9,1	0,0	9,1	18,2	0,0	63,6

Bigarrenik, galdetu da bideo jokoaren hizkuntza zein den. Hona hemen herriko ikasleen erantzunak:

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Beste hizkuntzak	Bideo jokorik ez
LH	7,1	71,4	28,6	0,0	21,4
BH	0,0	27,3	9,1	0,0	63,6